Lan-eskaintzen erregistroa 2023an

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan 14.878 eskaintza erregistratu dira 2023an, 2022an baino 44 gehiago (% 0,3ko igoera).

LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketa Administrazio Unitateko lurralde historikoari dagokionez, 2.493 eskaintza erregistratu dira Araban, 5.996 Gipuzkoan eta 6.389 Bizkaian. Eskaintzen % 42,9 Bizkaiko UAG-etan erregistratu dira, % 40,3 Gipuzkoan eta % 16,8 Araban.

Eskaintzaren Lurralde Historikoa



Hiru lurraldeetatik bilakaera positiboa izan duen bakarra Araba izan da, 273 eskaintza gehiago jaso baitira (% 12,3ko igoera). Bizkaian murriztu dira gehien eskaintzak, bai balio absolutu zein erlatibotan, % 2,8ko beherakadarekin eta 182 eskaintza gutxiago; Gipuzkoan % 0,8koa izan da jaitsiera (47 eskaintza gutxiago).

ESKAINTZAREN OKUPAZIOA

Bost okupazio-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako eskaintza gehienak. Zientzietako teknikarien profilak izan ditu eskaintza gehien; eskaintza guztien % 21,5 (3.193 eskaintza). Laguntzako teknikarien, zerbitzuetakoen, industriakoen eta kualifikatu gabekoen eskaintzek ere pisu nabarmena dute erregistratutako eskaintzei dagokienez, erregistratutako eskaintzen kopurua 2.573, 2.482, 2.175 eta 1.921 eskaintzakoa baita, hurrenez hurren. Eskaintza gutxien erregistratu dituen profila zuzendaritza da, 111 eskaintzarekin soilik, eta, ondoren, lehen sektoreko langileen profila, 156 eskaintzarekin.

Urte arteko saldoari dagokionez, profil tekniko-zientifikoaren eskaintzak dira gehien igo direnak balio absolutuetan, 185 eskaintza gehiagorekin (% 6,2ko igoera); balio erlatiboetan, lehen sektorekoen eskaintzak igo dira gehien, % 17,3ko hazkundearekin (23 eskaintza gehiago). Aitzitik, balio absolutuetan jaitsiera handiena izan duten eskaintzak industria-profilekoak izan dira, 116 eskaintza gutxiagorekin (% 5,1eko murrizketa); balio erlatiboetan, jaitsiera handiena operadoreen eskaintzetan gertatu da, % 6,9ko jaitsierarekin (74 eskaintza gutxiago).

KONTRATU MOTA

Erregistratutako eskaintzen % 38,2 mugagabeak izan dira, eskaintzen % 61,2 aldi-baterakoak, eta gainerako % 0,6 merkataritzakoak. Kopuru absolutuetan, eskaintza mugagabeak 5.681 izan dira, iaz baino 1.321 eskaintza gehiago; % 30,3ko hazkundea. Aldi baterako eskaintzak 9.106 izan dira, iaz baino 1.272 gutxiago; kopuru erlatiboetan % 12,3ko beherakada. Azkenik, merkataritza-eskaintzak 91 izan dira 2023an, iaz baino 5 gutxiago.



Kontratuen kalitatea ikustea litzateke interesgarriena. Ildo horretan, kontratu mugagabeen portzentaia igoera nabarmendu behar da, 2022ko % 29,4tik 2023ko % 38,2ra igaro baita. 2021aren amaieran onartutako lan-erreformak mota horretako eskaintzen gorakada nabarmena ekarri du.

ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2023an erregistratutako eskaintzen % 76,5ek 0-6 hilabeteko esperientzia eskatzen dute, 11.387 eskaintza guztira. Eskaintzen % 12,3k (1.833) esperientzia handiagoa behar dute, 6 eta 12 hilabete artekoa. Erregistratutako eskaintzen % 8,7k (1.296 guztira) urtebete eta 3 urteko esperientzia behar dute. Bolumen txikiagoak dituzte esperientzia-aldi handiagoa eskatzen duten eskaintzek; hala nola 3 eta 5 urte bitartekoak eta 5 urtetik gorakoak, % 1,9ko eta % 0,6ko pisuarekin, hurrenez hurren.



Bilakaerari dagokionez, azken urtean gora egin dute eskaintzek eskatutako esperientzia-tartea 1 urtetik beherakoetan (+85) eta 5 urtetik gorakoetan (%50,9o igoera erlatiboa). Aitzitik, jaitsi egin dira eskaintzak 1-3 urte (-37 eskaintza) eta 3-5 urte (-33 eskaintza) bitarteko tarteetan

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 7 hilabeteko esperientzia eskatu dute, 2022an bezala.

Lan-eskaintzen erregistroa 2023an

LANALDI MOTA

Ezer baino lehen, esan behar da lan-eskaintza guztiek ez dutela zehazten lan-jardunaldia eskaintzak erregistratzeko orduan; eskaintzen % 15,4ek soilik zehazten dute lanaldia (14.878 eskaintzatatik, 2.286 bakarrik). 2.286 eskaintza horietatik, 1.889 (% 82,6) lanaldi osoko lan-eskaintzak izan dira, eta gainerako 397ak lanaldi partzialekoak.



Bilakaerari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 205 gehiago izan dira 2022 urtearekin alderatuta, hau da, % 12,2ko igoera. Lanaldi partzialeko eskaintzak 70 gehiago izan dira, eta igoera erlatiboa % 21,4koa izan da.

ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan lan eskaintzen % 1,9 kudeatu dira ABLEn bitartez, 14.878 eskaintzatatik 248. Aurreko urtean 288 izan ziren

ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Hori da eskaintzak erregistratzeko orduan beti zehazten ez den beste datu bat. Eskaintzen % 81,2k ez du zehaztu eskatutako gutxieneko prestakuntza-maila. Erregistratutako 14.878 eskaintzetatik 2.795ek bakarrik zehaztu dute lanpostuko zereginak bete ahal izateko gutxieneko maila akademikoa.



2.795 eskaintza horietatik 1.086k LHko ikasketak behar zituzten (% 38,8), gehien eskatu den gutxieneko ikasketa-maila izanik. Ondoren, unibertsitateko ikasketak datoz, 987 eskaintzarekin (% 35,5). Ondoren, derrigorrezko gutxieneko ikasketen maila aurkituko genuke, 547 eskaintza erregistratu baitira, eta horien pisua % 19,6koa da. Azkenik, batxilergoko ikasketak izango genituzke, maila akademiko horrekin erregistratutako 175 eskaintzarekin; eskaintza guztien % 6,2ko pisua dute.

Bilakaerari dagokionez, esan behar da 2023an pixka bat handiagoa izan dela beharrezko ikasketa-maila zehaztu duten eskaintzen kopurua (2.795 eskaintza 2023an, eta 2.783 eskaintza 2022an), eta, eskaintza horiek, erregistratutako eskaintza guztien gainean duten pisua berbera izan da 2023an 2022arekin alderatuta (% 18,8 bi kasuetan). Urte arteko erlazioan, eskaintza guztiak gehitu dira, unibertsitatekoak izan ezik, 50 gutxiago izan baitira (-%4,8). Derrigorrezko ikasketen eskaintzak igo dira gehien balio absolutu zein erlatiboetan, 45 eskaintza gehiago eta % 9ko igoera.

ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako eskaintza-bolumenagatik nabarmentzen diren jarduerak manufaktura-industria eta merkataritza dira, % 13,8 eta % 11,9ko pisuarekin, hurrenez hurren (14.878 eskaintzatik, 2.052 eta 1.773 eskaintza, hurrenez hurren).

Iazko datuekin alderatuta, eskaintza-kopurua gehien igo duten jarduerak administrazio publikoa (218 eskaintza gehiago) eta osasun- eta gizarte-zerbitzuen jarduerak (134 eskaintza gehiago eta % 10,8ko hazkundea) izan dira. Aitzitik, eskaintzak gehien jaitsi diren jarduerak industriakoak (214 eskaintza gutxiago) eta eraikuntzakoak izan dira (93 gutxiago).